

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

ALKATETZA ETA ERAKUNDE HARREMANAK

Euskara

Udako Euskal Unibertsitateak antolatutako ikastaroetara joateko bekak arautzen dituzten berariazko oinarriak. Gasteizko udalaren 2019. urteko deialdia

2019ko uztailaren 19an egindako bilkuran Tokiko Gobernu Batzarrak onetsi egin zituen 2019. urtean zehar Udako Euskal Unibertsitateak antolatutako ikastaroetara joateko diru-laguntza deialdia arautuko duten berariazko oinarriak.

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta lege horren araudia onetsi zeneko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan arautuaren ildotik, eta orobat Toki Korporazioen Zerbitzuen Araudiaren 23. artikuluan eta hurrengoetan eta Gasteizko Udalbatzak 2005eko ekainaren 17ko ohiko osoko bilkuran hasierako onespena eman zion eta 2006ko urtarilaren 13ko ALHAOn -5. zenbakia- argitaratu zen Gasteizko Udalaren Diru-laguntzak arautzeko Ordenantzan arautuaren ildotik, argitara ematen dira, denek izan dezaten horien berri.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko uztailaren 24an

Alkatezaren eta Erakunde Harremanen Saileko zinegotzi ordezkaria
AMAIA BARREDO MARTIN

Sarrera

2018ko abenduaren 28an onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Gasteizko Udalaren dirulaguntzen deialdiak arautzen dituzten oinarri orokorrak. 2019ko otsailaren 13ko ALHAOn (19. zenbakian) argitaratu ziren oinarri orokor horiek, eta Udalaren webgunean kontsulta daitezke —www.vitoria-gasteiz.org—, baita herritarrei laguntzeko bulegoetan ere. Deialdi honetara aurkeztu nahi duten entitateek oinarri orokor horietara jo beharko dute jakiteko eskabideak non eta nola aurkeztu, zein betebeharrak izango dituzten, instrukzio eta ebazpena, jakinarazpena, dirulaguntzak nola justifikatu behar diren, zein formulario baliatu behar dituzten, arau-haustea eta zigorrak, interpretazioa eta aplikagarri diren araudiak eta abar.

1. Dirulaguntzen ildoak

Herritarrei euskara ikasten laguntzea. UEU Udako Euskal Unibertsitateak antolatutako ikastaroetara joateko bekak.

2. Deialdiaren xedea

Udako Euskal Unibertsitateak 2019ko urtarilaren 1etik 2019ko azaroaren 18ra bitartean antolatzen dituen ikastaroetara joateko bekak ematea.

3. Onuradunen betebeharra

- Ikastaroa hasten den eguna baino urtebete lehenagotik Gasteizko udalerrian erroldatuta egotea.
- Matrikula egiten den unean langabea izatea edo unibertsitate-ikasketak egiten aritzea.
- Deialdia arautzen dituen ikastaroetara joatea.

4. Baliabide ekonomikoak

Deialdi honen ildotik ematen diren bekak Alkatetzaren eta Erakunde Harremanen Udal Sailaren 2019ko ekitaldiko aurrekontuetako 2019/0171.3351.48001 partidan jasotako aurrekontu-kredituaren kontura joango dira; beraz, gehienez 1.000,00 euro baliatu ahal izango dira horretarako.

5. Aurkezteko epea

Eskabideak aurkezteko epea 2019ko azaroaren 22an amaituko da. Eskabidea Udalaren webgunean eskura daiteke (eskabide bakarra).

Gasteizko Udalaren Diru-laguntzetarako Deialdia Arautzeko Oinarri Orokorren 4.3. atalean aipatzen diren lekuetan aurkeztu ahal izango dira eskabideak.

6. Bekak emateko prozedura

Tokiko Gobernu Batzarrak Alkatetzaren eta Erakunde Harremanen Saileko zinegotzi ordezkariaren esku uzten du diru-laguntza hauek emateko eskumena.

Alkatetzaren eta Erakunde Harremanen Saileko Euskara Zerbitzuak egingo dio diru-laguntzak emateko proposamena Alkatetzaren eta Erakunde Harremanen Saileko zinegotzi ordezkariari, azaroaren 17ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege orokorraren 22. artikulua ildotik eratu den kide anitzeko organo baten bitartez. Hiru kidek osatuko dute delako organoa: Euskara Zerbitzuko buruak edo ordezko izendatzen duen pertsonak, eta Euskara Zerbitzuko bi teknikaririk.

Gehienez bi hilabeteko epean ebatziko da deialdia, eskabideak aurkezteko epea (ikus bosgarren oinarria) bukatzen den egunetik kontatuta. Ebazpena interesdunei jakinarazteaz gain, udaleko iragarki-taulan eta ALHAOn argitaratuko da.

7. Bekak ordaintzeko eta emateko prozedura

Jarritako baldintzak betez gero, irakaskuntzari dagozkion gastuak bere osotasunean ordainduko dira ikastaroa Gasteizen izan ez bada; ez, ordea, ostatuari eta otorduei dagozkienak. Gasteizko ikastaroak badira, irakaskuntza gastuen ehuneko laurogeia. Eskoletara huts egiten bada, eskatzailea joan ez den egunen zati proportzionala kenduko da. Gehienez bi ikastarotarako jaso ahal izango da diru-laguntza eta 300,00 euroko muga gainditu gabe.

Eskabideek horretarako dagoen kreditua gainditzen badute, behar den hainbanaketa aplikatuko zaie. Kreditua osoa gaindituko ez balu, 2019/0171.3351.48001 diru-partidaren kredituari gaineratuko litzaioke soberakina.